

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LARRINBEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Bide inbentarioaren hasierako onespena

Larrinbeko Kontzejuak, 2021eko urtarrilaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea Larrinbeko bide publikoen inbentarioari.

Hartutako erabakia eta horretarako eraturako espedientea jendaurrean jarriko dira, komunikabide ofizial honetan, Amurrioko Udalaren ediktu taulan eta Larrinbeko Kontzejuaren iragarki tauletan iragarkiak argitaratuz.

Jendaurrean egoteko hilabeteko aldia hasiko da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesa duen edonork espedienteko dokumentuak aztertu eta bidezko alegazioak egin ahal izan ditzan.

Inbentarioa kontzejuaren bulegoetan aztertu ahal izango da (Eliza plaza, 28 zenbakia, Larrinbe), hura jendaurrean egongo den hilabeteko larunbatetan, 10:00etatik 12:00etara arte.

Era berean, 2021eko otsailaren 4an, Larrinbeko Kontzejuko gizarte etxean (Eliza plaza, 28 zenbakia, Larrinbe), Gorosti Neurketak SL enpresa, inbentarioa egiteko ardura duena, inbentario hori kontsultatu nahi duen edonori erantzuteko egongo da, 10:00etatik 14:00etara bitartean.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsitaz joko da espedientea. Bestela, hau da, erreklamaziorik balego, Larrinbeko Kontzejuak ebatziko lituzke haiek eta, ondoren, behin betiko onetsiko luke espedientea.

Larrinbe, 2021eko urtarrilaren 7a

Lehendakaria

JUAN CARLOS RUIZ DÍEZ